

Marta eta Miren ahizpak dira. Martak bi iloba ditu, eta hauek ez dira Mirenen ilobak. Nola liteke?



***Martaren ilobak
Mirenen alabak
direlako, hain zuzen.***



Botikariak eta alabak, medikuak eta emazteak bederatzi pastel jan zituzten, bakoitzari hiruna egokituz. Nola liteke?

***Botikariaren alaba
medikuaren emaztea
zelako.***

Zuhaitzean zazpi txori daude. Ehiztariak tiro egin eta bi harrapatzen ditu. Zenbat gelditzen dira zuhaitzean?



***Batere ez, beste
bostek hanka egingo
dute eta.***

IRAKURRI BAINO LEHEN

Anai-arrebak ba al dituzue? Kontatu iezaazu zenbat anai-arreba, izeba-osaba...dituzun.

Iaioak al zarete matematiketan? Batzutan matematikak erabili behar dira asmakizunak asmatu ahal izateko...

Asmakizunak gustatzen al zaizkizue?

IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

- 1. Zure ahizparen alabak, zer dira zuretzako? Eta zu beraientzako?**
- 2. Bigarren asmakizunean, zenbat persona dira aipatzen direnak? Bakoitzak zenbat pastel jan zituen?**
- 3. Zein eragiketa egin duzu, bigarren asmakizunean, guztira zenbat pastel jan zituzten jakiteko?**
- 4. Zergatik aldegiten dute txoriek zuhaitzaren adarretik?**
- 5. Zenbat txoriei eman die tiroak?**

EKINTZA OSAGARRIAK

Gai izango al zinen beste asmakizun bat egin ahal izateko? Idatzi ezazu koadernoan.